

5. KANALAK

Jakinda gure bezero nagusiak sektore publikoko erakundeak izango direla, hots, Espainiako Gobernu eta Eusko Jaurlaritza. Horiez gain, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioa, Etxebizitza eta Hirigintza arduradunak eta Babes Zibila izango dira gure proiektuan funtsezko aliatuak.

Haiekin komunikazio zuzena ezarri nahi dugu, hots, hitzaldiak, aurkezpenak eta bilera ofizialak. Hitzaldiak egin nahi ditugu hondamendi naturalen ondoren etxebizitza azkar eraikitze aukerei buruzkoak, eta pobrezia-egoeran dauden komunitateetan modulu ekologikoen erabilerrari buruzkoak. Adibidez parte hartu ahal dugu **Civivox sareak** urtero antolatzen dituen hitzaldietan, ingurumen-jasangarritasunari eta berrikuntza sozialari buruzkoak, gure proiektua aurkezteko.

Proiektua konferentzietan, unibertsitateetan eta berrikuntza sozialeko foruetan aurkeztuko dugu. Gure proiektua aurkeztuko dugu **Babes Zibilaren Kongresuan**, larrialdietarako etxebizitza ekologikoei buruzko hitzaldi batekin. **EHUko jardunaldietan**, berrikuntza sozialari eta etxebizitza jasangarriari buruzko azalpen erraz bat egingo dugu, bertako ikasleak kontzientzia hartzeko, maketa eta bideoekin. **NESI Foroaren ekitaldian**, tailer parte-hartzaile bat egingo dugu, **GKE** eta erakundeekin batera gure proiektuaren erabilera praktikoa aztertzeke.

Arduradun politikoekin eta teknikoekin bilerak egingo ditugu gure proiektua aurkezteko. Horretarako, udaleko alkate eta hirigintza-arduradunekin bilduko gara, gure moduluak hiri-planetan nola txertatu azalduz. **Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin eta Babes Zibilaren arduradunekin** bilerak egingo ditugu, hondamendi naturaletan gure sistemaren erabilera aztertzeke, eta ahal izanez gero martxan jartzeko. Gainera, **Gurutze Gorriaren koordinatzaile teknikoekin** elkarriketak izango ditugu, larrialdietan moduluak nola erabiliko ditugun planifikatzeko.

Material ofizialak prestatuko ditugu gure sistema nola funtzionatzen duen azaltzeko: **maketa bat, infografiak, bideo bat gure** produktua azaltzeko, eta **dokumentuak** erakundeentzat. Eraikuntza jasangarriari eta laguntza humanitarioari buruzko azoketan eta erakusketetan parte hartuko dugu, gure moduluak erakusteko eta jendearen konfiantza irabazteko.

Gure bezero pribatu nagusiak izango dira hondamendi naturalen ondorengo jardueretan parte hartzen duten eraikuntza-enpresak eta etxe propioa eraiki nahi duten pertsona indibidualak ere, modu azkar, merke eta jasangarrian egin nahi dutenak. Bezero pribatu horietara iristeko, publizitate kanpainak egiten ditugu. Sare sozialetan bideo labur erakargarriak zabaltzen ditugu moduluen muntaketa azkarra erakusteko, eta webgunera interesdunak erakartzeko iragarkiak egingo ditugu; horrez gain, tokiko komunikabideetan, adibidez **Tele 7 telebista saioan**, eta eraikuntza edo arkitekturako aldizkarietan artikulu laburrak publikatu ohi ditugu gure sistemaren abantailak modu fidagarrian ezagutarazteko, konkretuki **TC Cuadernos aldizkarian**.

Gure produktuaren segmentu potentzial nagusia sektore publikoa dela kontuan hartuta, zenbait estrategia erabiltzen ditugu gure produktua haietara irits dadin.

Horien artean, auzo kalteberetan, urpean gera daitezkeen guneetan edo aldi baterako aterpeak behar diren guneetan proiektu pilotuak inplementatuz, sektore publikoari gure potentzialaren berri eman diezaiokegu, gure produktuarekin zer egin daitekeen erakutsiz.

Gure bezero pribatuei ailegatu ahal izateko, hainbat estrategia ditugu. Alde batetik, zuzeneko komertzializazioa egingo dugu, eraikuntza-enpresei eta banatzaileei produktua aurkezteaz arduratzen den talde komertzial tekniko baten bidez. Hauek bilera presentzialak eta birtualak egingo dituzte, material tradizionalen aurrean abantailak erakusteko eta interesa duten bezeroentzat lotura azkarreko sistemaren laginak eta erakustaldi praktikoak bidaliko dituzte.

Beste aldetik, marketin digitalaren teknikal erabiliko ditugu, konkretuki Web-orri bat sortuko dugu, fitxa teknikoak, bideo erakusleak eta eraginkortasunari buruzko konparazio-bideoak dituenak. Hala ere, gaur egun sare sozialak komunikabide bikainak direnez, instagram kontu batetik erakutsiko ditugu gure proiektuak.

Gure webgunea eta gure instagrama honakoak dira:

Instagram

<https://www.instagram.com/aterpolis/>

Webgunea

https://sites.google.com/d/16iKRyjc81lGksOrzQ2pB3peaqkL0uCYh/p/1_9iPZsJYsKG6ziAqOeEGZh9AXVqiJreM/edit